

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko kudeaketako zuzendaritzaren ebazpena. 7/2025 zerbitzu-eginkizunen deialdia

2025eko urriaren 21ean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko presidenteak ebazpena eman du, eta, horren bidez, Adinekoen Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (81.001 kodea) izendapen askeztetzeko deialdia bete gabe utzi da.

Ondorioz, lanpostu hori hutsik dago, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzak uste du lanpostu hori premiaz eta atzeraezinez bete behar dela, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 24ko 59/2007 Foru Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoaren arabera (Gizarte Ongizaterako Foru erakunde autonomoaren eremuan zerbitzu-eginkizunak arautzen dituen araudiari buruzko Erabakia).

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 106. artikulua ezartzen duenez, funtzionarioak, premia larri eta atzeraezineko kasuetan, zerbitzu-eginkizunetan esleitu ahal izango direla, lanpostua gordeta, beren kidego, eskala, titulazio-eskakizunik gabeko lanbide-talde edo lanbide-taldeko lanpostuetan jarduteko edo atxikita dauden lanpostuaren berariazkoen bestelako eginkizunak betetzeko.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 12 b) artikuluan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. Adinekoen Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (81.001 kodea) zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deialdia iragartzea, deialdiaren eranskinean agertzen diren baldintzetan.

BIGARRENA. Deialdiko lanpostua diputatuen kontseiluaren uztailaren 24ko 59/2007 foru dekretuaren II. eranskineko 2. artikuluan eta deialdi honi erantsitako eranskinean ezarritakoaren arabera esleitu da.

HIRUGARRENA. Zerbitzu-eginkizun honek indarrean jarraituko du lanpostua arauz bete arte, eta lanpostua bete aurretik edozein unetan amaitu ahal izango da zerbitzu-eginkizuna, ebazpen arrazoitu baten bidez.

LAUGARRENA. Ebazpen hau ALHAOn eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

BOSGARRENA. Foru-agindu honen aurka, argitaratu eta biharamunetik aurrera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, bestela, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan aurreiksitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 22a

Zuzendari-kudeatzailea

ERNESTO SÁINZ LANCHARES

ERANSKINA**ADINEKOEN ARLOKO ZUZENDARIORDE TEKNIKOAREN LANPOSTUA
BETETZEKO ZERBITZU-EGINKIZUNETARAKO DEIALDIA, 81.001 KODEA****Lehenengoa. Lanpostuaren deskribapena**

Kodea: 81.001.

Lanpostu-mota: B (bakuna).

Dedikazio erregimena: ehuneko 100 (osoa).

Betetzeko era: I (Izendapen askea).

Administrazioa: EAE (Euskal Autonomia Erkidegoa).

Sailkapen taldea: A (A1).

Eskalak: 1-2 (Administrazio Orokorra edo Berezia).

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe.

Lanpostu mailako osagarria: 29.

Berariazko osagarriaren zenbatekoa: 52.944,21 euro.

Lantoki herria: Vitoria-Gasteiz.

Ordu prestutasuna: 100 ordu, eta horietatik 40 ordu urteko ordutegitik kanpo egin beharko dira.

Bigarrena. Betekizunak

- Euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionario gisa zerbitzu aktiboan egotea.
- A (A1) sailkapen-taldekora izatea. Zerbitzu aktiboan dauden A (A1) taldeko karrerako funtzionarioek ez badago, zerbitzu aktiboan dauden eta B (A2) taldekoak diren karrerako funtzionarioek parte hartu ahal izango dute, baldin eta deialdian eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.
- Doktore, lizentziatu, ingeniari, arkitekto titulua edo baliokidea izatea.

Hirugarrena. Eskabideak

Eskabideak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (San Prudentzio kalea 30, 1.a, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz, hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera horretan, interesdunek, beren datuez gain, hurrengo hauek jaso beharko dituzte:

- A) Ikasketa tituluak.
 - B) Karrerako funtzionario izendapena, non agertu beharko duten taldeak eta eskalak edo, bestela, zein kidegori dagokion.
 - C) Nola herri administrazioan hala enpresa pribatuan izandako lanpostuak.
 - D) Egindako ikasketak eta ikastaroak, eta dakizkien hizkuntzak.
 - E) Izangaia alegatzea egoki irizten dituen bestelako merezimenduak.
- Eskaerarekin batera, izangaiek eskatutako betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dituzte.

Laugarrena. Ebazpena

Hautagaiek alegatutako merezimenduak ikusita, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kudeaketako Zuzendaritzak horri buruzko ebazpena emango du. Nolanahi ere, deialdia bete gabeko-tzat jo ahal izango da, deitutako lanposturako izangaien egokitasun-faltagatik.

Bosgarrena. Aurka egitea

Oinarri hauek, deialdi bera eta horien ondorio diren administrazio egintza guztiak aurkatu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura erkidearenak, ezarritako kasu eta moduetan.